



Azaroaren 30erako ZAINTZA ESKUBIDE KOLEKTIBOAREN ALDE eginiko greba orokorraren deialdia dela eta,
.....go atal sindikalak **ERABAKI DU** bat egitea deialdi horrekin.

Gaur egun, zaintza lanak (bizitzak sostengatzeko beharrezkoak diren lan horiek guztiak) ez daude modu justuan banatuta, emakumeon* gain erortzen dira gehienbat eta ez daukate ez aitortza sozialik, ez politikorik, ezta ekonomikorik ere.

Horrekin apurtu nahi dugu, gu guztiok bizitza duinak izateko eta zaintzak guztion ardura izan daitezen Zaintza Sistema Publiko Komunitario bat aldarrikatu nahi dugu. Norabide horretan, zaintza eskubide kolektiboaren alde borrokatzeko kalera aterako gara datorren azaroaren 30ean.

Bestetik, Mugimendu Feministak grebarako zerrendatu dituen aldarrikapenak geure egiten ditugula adierazi nahi dugu:

- Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa aldarrikatu.
- Zaintza sektoreko lan baldintzak duindu eta babestu.
- Etxeko langileen esplotazioarekin amaitu.
- Lan guztiak banatzeko 30 orduko lan astearen eta zaintzarako denborak bermatu.
- Gutxieneko soldata 1.400€-tan ezartzea eta 1.080€-ko gutxieneko pentsioa.
- Erroldatzeko eskubidea, agroekologia babestu eta etxebizitza eskubidea bermatu.

Azkenik, Grebari gure atxikimendua emanaz exijitzen dugu, bizitzak akabatzen dituen sistema honen aurrean, Euskal Herrian bizitzak erdigunean jarriko dituen zaintza sistema publiko komunitario baten alde urrats berriak eman daitezen eta gure konpromisoa berresten dugu bide horretan lanean jarraitzeko.

